


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2013ko ABUZTUA

## Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,5 jaitsi ziren 2013ko abuztuan aurreko hilaren aldean

### 2012ko abuztuaren aldean eraikuntza kostuak %0,1 jaitsi ziren

2013ko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,5 gutxitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,1, EUSTATEN datuen arabera.



2013ko abuztuan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak, %0,6 jaitsi dira, aurreko hilaren aldean.

Abuztuan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,6ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,5ekoa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,2 jaitsi dira eta Obra Zibilekoenak %1,7.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Kautxu eta plastikoa (%3,9), Ez-metalezko industria (%3,2) eta Makineria (%2,0), nabarmentzen dira, besteren artean. Urteko prezioetan (2013ko abuztua, 2012koaren aldean) murrizketak izan dituzte Petrolioa fintzearen (%-6,6), Metalurgiaren (%-5,5), eta Material elektrikoaren (%-1,3) lehengaiak.

**1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO ABUZTUA (p)**

|                   | INDIZEA      | ALDEAREN %  |             |             |
|-------------------|--------------|-------------|-------------|-------------|
|                   |              | m / m-1     | m / m-12    | m / abendua |
| <b>GUZTIRA</b>    | <b>103,0</b> | <b>-0,5</b> | <b>-0,1</b> | <b>0,6</b>  |
| ERAIKINAK         | 102,7        | -0,5        | 0,0         | 0,6         |
| OBRA ZIBILA       | 104,5        | -0,4        | -1,1        | 0,6         |
| <b>LEHENGAI A</b> | <b>102,8</b> | <b>-0,6</b> | <b>-0,5</b> | <b>0,4</b>  |
| ERAIKINAK         | 102,5        | -0,6        | -0,2        | 0,4         |
| OBRA ZIBILA       | 104,8        | -0,5        | -1,7        | 0,5         |
| <b>LAN-ESKUA</b>  | <b>103,6</b> | <b>0,0</b>  | <b>1,0</b>  | <b>1,0</b>  |

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua